

# Joxe Azurmendiren ebidentziak: trantsizioaren mitologia

Pako Sudupe Elortza  
Euskal idazlea

Azurmendiren ebidentzia pertsonal eta familiarretatik abiatutik —esaterako, bi osaba tropa nafarrek fusilatutak, eta aita txiripaz libratua jauntxo karlista bati esker—, eta haiek egungo euskal gazte globalizatu eta digitalizatuari helarazteko zailtasunak aipatuz, Espainiako nazio-estatuaren sorrera batere ez-arrazional eta liberalera igarotzen gara, haren sorreraren mitologia azaleratuz, eta bereziki zentratuz azken berrehun urtean zein zaila izan den galego, katalan eta euskaldunontzat galego, katalan eta euskaldun izaten jarraitzea, espainiar estatua gaztelau nazio bakarrean gorpuztuz joan delako, eta jarraitzen duelako benetako plurinazionaltasuna, hots, planteamendu konfederala baztertzeko. Zentralismo horren aurrean, estatu horrekiko ez-dependentsia proposatzen du Azurmendik, azken erremedio moduan; ez, berez, independentzia ezinbestekoa delako, baina, bai, gure kasuan, Frantzia eta Espainia jakobinoen erdian, zatituz, bizirik irauteko eta garatzeko nahitaezkoa delako.

GAKO-HITZAK: Ebidentzia · Mitologia historikoa · Zentralismoa · Ez-dependentsia.

## Joxe Azurmendi evidence: transition mythology

Starting from the personal and family evidences of Azurmendi —verbigracia, two uncles shot by navarre troops and their father saved by the hair thanks to the support of a carlist chieftain—, and indicating the difficulty of transmitting them to the new generations of globalized and digitized Basque youths, we begin to account for the generation of the Spanish nation-state, nothing rational and liberal, revealing its mythical origin, focusing in particular on how difficult it has been these last two hundred years for Galicians, Catalans and Basques to remain Galician, Catalan and Basque, because the Spanish state has been shaped solely around the Castilian nation, and because it continues to reject a genuine plurinationality and confederal approach today. Given this centralism, Azurmendi proposes non-dependence on that State, as a last resort, not because independence is inescapable per se, but because in our case, located between centralized France and Spain, and divided, it is essential for their survival and development.

KEY WORDS: Evidence · Historical mythology · Centralism · Non dependence.

## Sarrera

Batik bat euskarazko literatura, Euskal Herriaren historia eta gure aldiari aldiko egoera politikoari buruzko iritziak eta gogoetak plazaratu dizkigulako da ezaguna gurean Joxe Azurmendi, bere iritziak Europako idazle eta intelektual handien aipuez zirtaturik —bereziki alemanak— aditzera emateagatik.

Idazle europarra da Azurmendi, iruzkindu izan dituenak bezainbeste, katolikoa baino areago protestante tradiziokoa —Kant eta haren ondokoen tradiziokoa—, eta dudarik gabe komunitarista —jakinkiderik izan ez balu, ez zukeela idatziko aitortu izan du—. Errepara paragrafo honi: «Komunitatea eta Jainkoa: Kontzeptu oinarrizko bat honetan guztian komunitatearena da. Komunitateak sortzen d(it)u bere Jainkoa(k), eta —komunitatearekin, komunitatearen aurka, komunitateari buruz— komunitatean sortzen dira krisiak edo abandonokoak ere» (Azurmendi, 2009: 378) edota errepara pasarte honi:

Batzarrak ohartu zuen orduan mailua indartsua dela, torlojuak batasuna eman eta sendotu egiten duela, lixa aparta dela leuntzeko eta lazgunek gozatzeko, eta metroa doi-doi eta guztiz zehatza dela beti. Ekipo bat, gauza zena kalitatekeri ederreneko altzariak adalatzeko, sentitu ziren orduan, elkarrekin lanean jarduteko harrotasunez eta kemenez. Halaxe da andre-gizonokin. Begira inguruan eta aise ikusiko duzu. Enpresa batean, bata bestearen akatsak ikusmiratzen direnean, giroa txartu egiten da. Aldiz, aintzat besteen alde positiboak hartzen badira zintzoki, orduan egitatekeri ederrenak burutzeko ekipoa loratzen da. Edozein tontok igarri ditzake normahiren akatsak. Inoren dohain positiboek antzemateko espiritu zoliagoa behar da: giza arrakasta beti inspiratu duen espiritu goitia (Azurmendi, 2016: 138).

Ezin ahaztu, ildo bertsuan, Arizmendiarrietari buruzko tesia eta gizabere kooperatiboaz aditzera emandakoak.

Bere liburuetakako asko entziklopedia iradokitzaileak dira, ohar ikasgarriz beteak. Baina horiez gain, hitzurreak ere idatzi ditu eta honako artikulua honetan, horietako baten gainean fokua jarririk, beraren ebidentziak izango ditugu begipean.

Hasteko, esan behar da Jose Mari Esparzaren *Cien razones por las que dejó de ser español* (2006) liburuaren hitzurrea izateko idatzi zuela idatzi honetan ardatz izango dugun «Hitzurre mailegatua» deritzan testua —Esparzaren liburu horretan Azurmendiren hitzurre laburrago bat argitaratu zen, Méndez Ferrín galegoaren eta Víctor Alexandre katalanaren hitzurreekin batean—, eta lehenago aipatu dugun trilogiaren lehen liburu argitaratu *Espaniaren arimaz* deritzanean agertu zela.

Ohartxo bat: duela dozena bat urte idatzitako testua izanagatik, egungoa da.

### 1. Ebidentzia pertsonalak

«Zu espainola zara ala ez?» galderari arrapostua ematen hasita hasten da halaber bere ebidentziak ere aditzera ematen; hasteko, pertsonalak:

Zuk badituzu zeure ebidentziak, zuk ere. Langile herrixka euskaldun bateko haurra zara sortzez, zure hizkuntza euskara da (trakets samartua, damuz), zure lagun gehienak euskaldunak. Euskalduna zaren ala ez behintzat, dudarik ez daukazu. Baina ez da hori. Donostian ala Tafallan edo Madrilen jaiotzen bizi, barne-barnean zuretzat hautatua daukazu mundua, zeinekin ere identifikatzen baitzara, Euskal Herria da. Hori da kontua: nahia. Ebidentziak egin egiten dira —hautu librez—, bakoitzak bereak. Kontzientzia bezala da. Eta gaur horietxek dira zure ebidentziak: Euskal Herria, euskara, Euskadi, presoak, torturatuak, euskal jende langilea, euskal kultura (Azurmendi, 2006: 7)<sup>1</sup>.

Ebidentzia horiek izatea eta zabaltzea ez da gaur errazagoa atzo baino, eta bihar ere ez du ematen erraza izango denik marko politiko-kultural-linguistiko honetan jarraitzekotan, eta hala jarraituko dugula iduri du guk nahi baino gehiago, itxura guztien arabera. Joxe Azurmendi bera Alemaniako Kolonia eta Donostia artean bizi da, baina kultura alemana eta batez ere idazle aleman handiak oso ongi ezagutuagatik, bere erreferentzia eta ebidentzia nagusia Euskal Herria da, eta euskaraz lan egiten du: Euskal Herriari eskaintzen dio lan intelektuala.

Neu ere langile-herri euskaldun batean jaioa naiz, euskaldunez inguratua bizi izanik ez dut inoiz zalantzarik izan euskaltasunaz, eta euskaraz idatzi behar nuelakoaz, baina Donostia ondoan bizi izanagatik badut zalantzarik nire ondorengo euskaltasunaz: ez dakit Azurmendik aipatzen dituen ebidentzia horietatik zenbat egingo dituzten bere, ni saiatuagatik. Gazte-denboran izan nuen ingurune euskaldun trinkorik ez dute, eta espainola eta anglosaxoia edo amerikanoa zabalagoa: lagunak, youtuberrek, hedabide erdaldunek sekulako eragina dute, eta mundu globalizatu honetan identitate estatala aiseago hedatzen da, eta horrekin batean identitate autonomiko diglosikoa.

Zenbat ebidentzia iraganen zaizkie, eta zenbat galduko dituzte, familian, lagunartean, lanean?

## 2. Ebidentzia familiarrak

Ebidentzia pertsonaletatik familiarretara igaroz, honela dio Azurmendik:

Aitona bat azken karlistadan preso hartua, gero Kubara soldadu eramana Espainia defendatzera (...). Aita bat mirakuluz bizirik aterea gerran. Gerraondo triste beldurrez ikaratu bat; eskolako maisu falangista, euskararen erdeinua eta euskaldunaren autogorrotua irakasten soilik aditu iaioa; eliz horman zerrenda bat marmol zurian «Caídos por Dios y por España», aldare alboan bandera inperiala, etxe guztiek ere leihoetan eseki beharra zeukatena ez dakit zein jaiegunetan. «Probintzia traidoreak», errazionamendua, grebak eta kaleak militarki okupatuak. Gero, isilaldi luzea. Eta berriro, gaztaroaz geroztik, presoak, exilioak, torturak, eta beldurra. Presoak eta torturak behin eta berriro. Eta Espainia eta Franco ilunpe dena betetzen. Galdegiozu, poliziak «Grita Viva España! Más fuerte, más fuerte!» orruka torturatu zuenari, ea espainola sentitzen al duen bere burua (EA, 8).

---

1. Hemendik aurrera, *Espainiaren arimaz* liburua aipatzeko EA erabiliko dut, eta orrialdea.

Lehenbizi egin beharreko oharra da «zu espainola al zara?» galderari erantzunez tolesturiko hitzaurrea dela; horrenbestez, Hego Euskal Herriko familia euskaldunen historiak ari dela, eta 1936ko gerrara iritsita, Francok probintzia traidore izendatutako euskaldun-familien historiak, ez noski Francoren alde ibilitako nafar eta arabarrenaz, eta are gutxiago Lehen Mundu Gerran eta bigarrenengoan edo Aljerian, frantsesekin batean, alemanen edo aljeriar musulmanen aurka ibilitako euskaldun-familien historiari buruz.

«Aita bat mirakuluz bizirik aterea gerran», aipatzen du. Horren azalpena honako hauze da: 1936ko gerran, tropa nafarrak Otzaurte menditik behera sartu zirenean, Joxe Azurmendiren osaba bat fusilatu zuten, eta beste osaba bat ere fusilatu zioten (ez da ondo gogoratzen Azurmendi; beharbada, biak batera). Aita, berriz, atxilotu eta Zegamako herriko plazan hormaren kontra eduki zuten gau osoan, goizean fusilatzeke asmotan. Herriko jauntxo karlista batek ezagutu omen zuen aita, eta libre uzteko konbentzitu omen zituen fusilatzailleak<sup>2</sup>.

Probintzia traidoreetako familia euskaldunetan kontatzen edo bizitzen zenera etorrita, zenbat euskaldun gazte eta sasoikok esango du hori irakurrita, familian apenas jaso duela Espainiako historiako gertakari handien eta txikien berririk. Familia bidezko transmisioak noiz arte funtzionatu du gure etxeetan?, noiz utzi dio familiak historiaren transmititzaile izateari? Niri neuri heldu zaizkit familia bidez Joxe Azurmendik aipatzen dituen gertakari horietatik gehienak, hots, bigarren karlistada, Kubako gerra, 1936ko gerra, lehen gerraondokoa, eta apenas ETAk abiarazitako borrokarena.

Inpresio orokorra da familiak asko galdu duela transmisio-rol hori, eta nagusiki irakaskuntzak eta hedabideek betetzen dutela egiteko hori. Baina eskolan zer?, Hego Euskal Herrian nola ematen dira azken berrehun urteko gertakariei buruzko informazioak?, nola 1936ko gerrari buruzkoak, eta frankismokoak? 1978ko Konstituzioa, trantsizio demokratikoa eta autonomi erkidegoen Espainia eta ETAr buruzkoak?; eta Iparraldean: alemanen aurkakoak, eta aljeriarren aurkakoak, eta ETAREN borrokarenak?, eta hedabideetan? Esango nuke ideologia menderatzaileak nahi duen eran, nagusiki.

### 3. Espainiaren eta euskaldunen historiaren sintesia

Jose Mari Esparzak arrazoi du Joxe Azurmendirekin batera dioenean herri bat eta nazio bat garela frogatzeko nazio eta nazionalitateen gaineko analisi sakonik egin beharrik ez daukagula, eta beti ezin garela historiaren norian bueltaka ibili, eta euskaldunok Nafarroako Estatua, Foruak, Zuzenbidea, Gernikako Arbola, karlismoa eta aranismoa (badaezpada ETA ezin aipatu) izan ez bagenu ere, baina izan genituela ahaztu barik, etorkizunera goazela, eta independentziaren premia larria dugula (Esparza, 2006: 25), baina era berean egia ere bada pertsonen euren iraganaren kontzientzia hartzen dutenean euren nortasunaren kontzientzia ere hartzen dutela, eta gure kontzientziaren erdia iragana, historia dela, eta beste erdia etorkizuna eta proiektua.

2. Joxe Azurmendik e-postaz bidalia 2018-11-08an. Ikusi, bestalde: «Aita salbatu zidanari» poema, liburu honetan: *Hitz berdeak*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1971, 143.

Ildo horretan, ziur nago gaur egungo gazteek ez dutela Espainiaren eta gure historiaren horrelako sintesirik ikasi. Sintesi hori zabal, besteak beste, *Espainolak eta euskaldunak* liburuan du aztertua eta azaldua Joxe Azurmendik, eta beste neurri batean gogoetagai dugun hitzaurre honen ondoko testuan. Historia urrunagoa honela laburbiltzen digu:

Botere zentroen hedakunde eta sakonketaren historia mendebaleko geografian. Oin-atzaparrak Gaztelan sartu eta, elizak babesturik, poliki-poliki, presio eta zemaiz, intrigaz eta propaganda monastikoz, diplomaziaz nahiz bortxakeria gordinez, hedatuz joan den Botere armatua, Araba, Bizkaiko Jaurgoa, Gipuzkoa beregana bilduz, lotuz joan dena, azkenik Nafarroa piztitzarki konkistatu eta anexatzeko. Barka «inkorporatzeko». Ez da izan, ez, gaur Gorteko teologo laikoek sinestarazi gura izaten diguten legez, razionalitatearen progresu historia bat, ezta «Espainiaren bategintzarik» ere. Espainia hori geroago inbentatuko da. Anbizio gordinen historia basa ertarotarra da, krimenez josia (...). Ez du batere zerikusirik razionalitatearekin edo helburu idealen teleologiaren batekin, Botere beltz eta dominazioarekin baino, eta monarkia eta konkistaren printzipio barbaroarekin (EA, 8).

Laburrago, Gaztelak Eliza katolikoarekin batera gidaturiko Erdi Aroko historia ez da helburu ideal arrazionalak gailenarazteko historia izan, baizik eta botere-borroka, diplomazia eta bortxa armatuz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bildu eta lotzeko, eta Nafarroa piztitzarki menderatu eta konkistatzeko. Geroago historia hori edertu, eztitu eta asmatu bada ere.

Euskaldunok izan ez dugun Errenazimentukoa (Espainiako Inperioaren mutil goi-klaseak Hegoaldean), eta foruen garaikoa —oroit eraztunaren zigorra Hegoaldean garai hartan hasi zela; eta Iparraldean, Etienne Salaberryk salatu izan duenez, XX. menderaino heldu zen «bchette» deituriko abartxoak eskoletan, haurrak elkarren salatzaile bihurtzen zituena, azkena zeukana zigortua izatera kondenatua baitzen—ukitu gabe —*Espainolak eta euskaldunak* liburuan luze azaldua—, azken berrehun urteko historia hurbila?: «Frantzia eta Espainia modernoak Estatu-Nazio zibilizatu gisa hasi diren momentutik, euskaldun izatea, edo katalan ala galego izatea eta espainol izatea, edo frantsesa, partikularik gaizki elkarretorri dira. Liberalen inbentua da Estatu-Nazioaren kontzeptua» (EA, 9).

Baina liberal izenondoa kontserbadoreari kontrajarririk batik bat, konnotazio positibo hornitua adimeneratzen bazaigu ere lehen oharpenean, espainiar liberal ilustratuek gutxi izan dute liberaletik:

Antzinako Erregimeneko gorputz politikoa erregearen buruan bakarrik uztarturikoa birpentsatzean, eredutzat Gorputz Mistiko eliztarra hartu dute, Estatu-Nazioa Eliza Nazional bat bihurtaraziz. Lehen Koroaren meneko zinen, eta munduan ibiltzeko aski zenuen galego, katalan, euskaldun izanda. Orain, baina, Estatu-Nazio modernoa gara, eta espainola izan beharra dago; are, printzipio berria herriaren nahiarena da, eta libreki nahi izan beharra dago espainola izatea (EA, 9).

Eta estatu horri historiaurretik jada bere esentzia eta izaera asmatu zaizkio, Espainiaren pertsonaia loria ederrez jantzi da, esentzia beti espainol-espainola eta historia horren teologia moduan asmatu zaio Jainko berriari historia berri bat:

Horrela asmatu dira Don Pelaio berkonkistaria, Errege Katoliko arrazista batzuk Espainiaren bategile santuak, Mostolesko alkate bat abertzale heroikoa (ez terrorista?)<sup>3</sup> eta Independentzia Gerra zuntzun bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia espainola. Ez da ikusten, katalan batek Don Pelaio zergatik kontsideratu beharko lukeen bere historia propioagoa Joana d'Arc baino. Mio Cid poema gaztelauarentzat katalanak frantsesak dira. Edo nafar batek Errege Katolikoak zergatik ez litzuzkeen kanaila hutsak iritzi behar (EA, 9).

Espainiak egindako historiaren manipulazioa ahazturik, memoria historiko bat dugu eta «nazio» bat gara, bere 1978ko Konstituzioarekin, nahitaez jakin behar dugun hizkuntza bakarrarekin (3. art.: *El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla*) —frantsesaren erabateko inposizioa eta Hexagonoko gainerako hizkuntzen —*patois*-tzat hartuak— bazterketa sistematikoa Frantziako Iraultzaren Terrorearen garaitik hasi zen ideologikoki (1794), Gregoire apaizarekin-eta, eta III. Errepublikatik aurrera (1870) eskola bitartez gauzatu tematsuki, eta 1958ko Konstituzioaren 2. art.: «*La langue de la République est le français*»; eta Espainian Cadizeko Konstituziotik aurrera (1812) frantsesen eredu zentralista jakobinoa nazio bakar eta hizkuntza bakarrari jarraiki, eta irakaskuntzako Moyano legetik aurrera bereziki (1857)—, eta abertzaletasun konstituzionalarekin, eta

... harreman aspaldiko guztiekin ere, euskaldun, galego edo katalanentzat orain artean «aberria» ez beste edozer gauza izan den betiko Espainia/Gaztela hori, (...) guztion aberri izatea da bat-batean obligazio, eta gurtu eta maitatu egin behar da. Izan ere, Koroaren printzipioa herriaren nahiarenaz bezala, ezpataren printzipioa zuzenbidearenaz ordeztu denez gero, eta zuzenbidea sakratua deklaratu —gutziz «razionalki»— zer gurtu ahal den eta zer maitatu behar den ere, lege konstituzionalez erabakitzen da orain (EA, 9-10).

Koroak zer paper jokatzen duen Espainian egun, XXI. mendeko bigarren hamar-kada aurreratua den honetan, eta bortxa armatuaren eskumakila diren ordezkari auzitegiek zer dagiten ikusteko parada ederra Kataluniak eman digu oraindik orain, eta ematen ere jarraituko du. Eta Katalunia esaten dugunean, Euskadi ere esaten ari gara.

---

3. Daoiz eta Velarde militar matxinoak, eta militarra izan gabe frantses soldaduen aurka Zaragozan kanoia dispartzen asmatu zuen Agustina Aragoikoa, Reusen jaioa, ezagunagoak dira. Horregatik informazio gehigarri hau: 1808ko maiatzaren 2an, Napoleonen tropen aurkako matxinada-garaian, Madrilgo Mostoles-eko alkate zen Andrés Torrejón-ek manifestu hau idatzi eta zabaldu zuen, historialari batzuen ustez: «*Señores de justicia y de los pueblos a quienes se presentase este oficio de mí, el alcalde de la villa de Móstoles. Es notorio que los franceses apostados en las cercanías de Madrid, y dentro de la corte, han tomado la defensa sobre este pueblo capital y las tropas españolas; por manera que en Madrid está corriendo a esta hora mucha sangre; como españoles, es necesario que muramos por el rey y por la Patria, armándonos contra los pérfidos que so color de amistad y alianza nos quieren imponer un pesado yugo, después de haberse apoderado de la augusta persona del rey; procedamos, pues, a tomar las activas providencias para escarmentar tanta perfidia, acudiendo al socorro de Madrid y demás pueblos, y alentándonos, pues no hay fuerzas que prevalezcan contra quien es leal y valiente como los españoles lo son. Dios guarde a usted muchos años. Móstoles, dos de mayo de mil ochocientos ocho. Andrés Torrejón y Simón Hernández*»; beste batzuen ustez, aldiz, beste laburrago hau: «*La Patria está en peligro, Madrid perez víctima de la perfidia francesa. Españoles, acudid a salvarle. Mayo dos de mil ochocientos ocho. El alcalde de Móstoles*» (Ikus Internet: *La web de las biografías*-en: «Torrejón, Andrés (1736-1812)») [2019-12-01].

Joxe Azurmendik testu honetan ez du gogoratu gabe utzi nahi XIX. mendeko eta XX. mendeko historia Hego Euskal Herrian suaren historia izan dela:

Sei urte gerra karlistan, Bergarako bake faltsua, emigratuak milaka Ameriketara, Foruen murrizketa; berriro gerra, berriro porrota, berriro bake faltsua, Foruen abolizioa; euskal gizartearen barne urraketa sakona, diktadura militarra, errepublika apur bat eta gerra berriro, emigratuak milaka berriro, eta presoak, fusilatuak... 200 urte Estatu terrorismoa, 50 urte ETA. Europan parerik ez duen memoria historiko tragikoa heredatu dugu etxeetan; eta eskolan eta bizitza ofizial publikoan mitologia pilo bat, hura dena progresoaren, razionalitatearen, modernizazioaren, askatasunen garaipen bezala ospatzen duena —beti ere historia garaileak idazten baitu— (EA, 10).

Hor Azurmendi euskal tradizio baten barruan ari da. 1979an *Punto y hora* kazetak egin zion elkarrizketan, antzera mintzo zen Telesforo Monzon:

Aquí lo que ha pasado es que unos terroristas vinieron hace ciento cincuenta años a este país y se llevaron en el saco la soberanía. Y estos terroristas se van sucediendo hasta los actuales terroristas que siguen con la soberanía metida en el saco sin quererla devolver. Y viene la guerra. Una larga guerra que no se ha terminado y que yo llamo la guerra de los 150 años (...). La época de Zumalacárregui y la primera guerra. La de Santa Cruz y la segunda, la de Aguirre y del Gobierno Vasco. La de ETA y Txikia y Argala. Con características distintas, eso sí (...). Las circunstancias de las distintas guerras desde el punto de vista filosófico, económico, social, son distintas, no cabe duda, pero el componente del fondo es el mismo. Una guerra nacional de recuperación de lo que los terroristas nos robaron hace ciento cincuenta años y hasta que esta soberanía vuelva a nuestro pueblo no hay paz posible<sup>4</sup>.

Ipar Euskal Herrikoa, gorago aipatu bezala, euskal nortasunaren higitzaile izan diren frantsesekin batean alemanen aurkako eta musulmanen aurkako suarenak izan diren bezalatsu.

#### 4. Bitoriano Gandiaga: hiltzen ari diren zuhaitza

Gorago adierazi dugunaren haritik, estatu-nazio hori errotik erlijiosoa dela diosku Azurmendik. Sakratutasunaren erritu, bandera eta liturgia guztiekin; eta fedea eta debozioa exijitzen digu. Ez da espazio politiko irekia, etnia galego, euskaldun eta katalanak gaztelau-etniarekin batean bizikidetzatza harmoniatsua izateko prestatu lekoa, baizik eta horien ukoa —Eliza katolikoa bezalaxe—. Estatu-nazioa gorputz mistiko etnizista bat da, bakarra eta hautsezina. Biolentziaren monopolioa legez, berak dauka etniaren monopolioa. Bai, dena ez du txarra, autonomia zerbait onartzen du, baina beti ondo mugatua.

Historialari eta soziologo eta poetak batenganagatoz, Bitoriano Gandiagarengana. *Hiru gizon bakarka* poema- eta kantu-liburua 1974an argitaratu zuen Bilboko Gero

---

4. «La paz puede hacerse hoy sin que nadie se vea obligado a traicionar a su patria» in *Punto y hora*, 1979-VI-14-21. Liburu honetan jasoa: Prest.: Izagirre, Koldo (1986): *Telesforo Monzon: Hitzak eta Idazkiak*, VI. Tomoa, Jaizkibel, 70. or.

argitaletxeak<sup>5</sup>, eta norbaitek politika egiteagatik salatu zuen liburuaren banaketa egin baino lehen eta justizia frankistak auzitegira eraman zuen, eta hona haren mintzaldia epaimahaiaren aurrean:

Mire, yo soy un árbol. ¿De qué política es el árbol? Yo vivo en esta tierra, hundo mis raíces en esta tierra, la tierra me da lo suyo. De eso vivo, esa es la sustancia que me invade. Mis ramas se elevan arriba. Mi esperanza y mi futuro y mi ilusión florecen hacia arriba. El cielo que está al par mío es mío. Y vivo de ese cielo que me da esperanza. De ese aire que da oxígeno a mis pulmones. Yo soy el árbol. Y lo que en mis poesías digo es lo que le pasa a ese árbol. Ese árbol y esos árboles, claro. Porque un árbol solo es muy raro. Un árbol vive junto a otros árboles, forma bosque. Mire: a este árbol se le va negando la tierra. Se le va negando el aire. Se le va negando el cielo. Se le va matando. Y entonces este árbol cruje. Eso es todo (EA, 11).

Eta euskal zuhaitzaren karraska-hots hori, diosku Azurmendik, Gandiagaren poesiatik ETAraino doa: «Gernikako arbola zaharra idortu da, haren aldamenean arbola berri gaztea goititu nahita borrokan ari da» (*Ibid.*).

## 5. Euskal Herria gizarte desintegratu bat

Espainia nazio-estatu modernoa egiteko esperimendu horrek Hego Euskal Herria zatitua, txikitua, birrindua utzi du. Hori egitate bat da. Administratiboki, politikoki, sozialki, linguistikoki, kulturalki. Identitate apurtua eta horren frogarik onena da batzuek uka dezaketela euskal identitaterik egon badagoenik ere, eta Euskadiko toki askotan ez dela sumatzen identitate hori, bereziki linguistikoki:

Berrehun urte honetan Euskal Herriko historia izan da, ez bakarrik eusko luraren Botere inbaditzaile militar, instituzional administratibo, eskolarraren historia bat, eta euskal erakunde politiko eta sozial tradizionalen desegilearena, baina baita arimen eta etheen eta harreman pertsonalen eta identitateen inbaditzaile eta nahastailearena ere. Behin egon zen euskararen herri bat; ez da asko gelditzen (EA, 13).

Atal horrek Joxe Azurmendiri buruzko lehen tesia burutu duen Haritz Azurmendiri burutazio iradokitzaile hauek eragin dizkio:

Gure belaunaldiaren (90. hamarkadan jaiotakoon) arazoa da, Albiztur bezalako herri txikietan, non euskararen erabilera ia 100%ekoa zen duela 15 urtera arte, puskatu egin dela. Frankismoak lortu ez zuena globalizazioak lortu duela. Telebistak, internetek, etb2k eta etb1en penagarritasunak... Arnasguneak lehertu dituen hirigintza absurdoak, gazteriaren prekarizazioak (nola pentsatuko dugu epe luzera bihar lanik izango ez badugu inguruan?)... Eta guztien azpitik ideologia ultraindividualista batek, talde batekiko konpromisoa eta ekintza kolektiboa karga potolo gisa ulertarazten dituen indibiduo libre apatetsuarentzat. Deserrotzea ez zen Weil-ekin amaitu. Eta horretan ez gara errugabeak gu euskaldunok ere<sup>6</sup>.

Euskal identitatearen beste apurtzaileak: globalizazioa, hedabideen eta Interneten eragina erdaren alde (ETB publikoa barne), hirigintza absurdoa, gazteriaren lan-

5. Ikus Gartzia Trujillo, Sebastian: «Bitoriano Gandiagaren *Hiru Gizon Bakarka* poema liburuaren metamorfosia» in Euskaltzaindiaren webgunean: Ikerbilduma, 179 or. [2019-12-01].

6. Haritz Azurmendik e-postaz igorria (2018-08-02).



prekarizazioa eta ideologia ultraindividualista. Euskaldunok geuk dugun errua ahaztu gabe.

Zein zaila den egun euskaraz bizitzea trinkotasun (gizarte-bizitzako arlo funtsezkoenetan) eta duintasun gutxienezko (sarri askotan erdarara igaro beharrik izan gabe). Amore-emateak ez ditut zurigarri jo nahi, osorik behintzat, baina bai ulergarri.

## 6. Espainiako ezkeraren, alderdi sozialistaren jokabide espainola

Zer egiteko jokatu du ezker espainolak Euskal Herrian?:

Euskadiko Alderdi Sozialistako buruzagi bat egunotantxe behin eta berrituz ari da, identitatearen arazoa eta holako txorakeriak berak ez daukala. Horiek iraganean baraturik bizi diren nazionalisten delirioak dira, bera gaurkotasunean eta errealismoan tinkaturiko gizona da. Identitatearen bat berak ere ukanen du, ezta?, pentsatzen duzu. Eta arazo gabekoa baldin badu berea, ez da zaila asmatzea, zein identitate duen (EA, 12).

Patxi Lopez hauteskundeetarako kanpaina egiten ari zen garai hartan<sup>7</sup>.

Ongizate unibertuala lortzea da garrantzizkoena, eta identitate arteko bizikidetzak aipatzen dute beti eusko sozialistek, hausturarik gabe; esaterako, autodeterminazio-erreferendum batek gizartea zatiu egingo luke; gurean eta Katalunian. Garbi dago ez dutela identitate-arazorik eta eroso bizitzen jarraitu nahi dutela.

Badu PSOEek Euskal Herrian jokatu duen paperaz liburu bat J. Azurmendik: *PSOE eta euskal abertzaletasuna*. Gogoetagai dugun hitzaurrean ere aipagai du alderdi horrek gure historian jokatu duen papera:

Doi-doi Estatu espainolak euskal erakunde politiko tradizionalak ezabatzen eta Euskal Herria desartikulatzen zuen momentuan, Euskal Herriko sozialistak mespretxu totalaren tradizio horren heredero eta jarraitzaile suharrenak berak paratu dira. «No tenemos más cultura que la cultura hispana, la que nos ha prestado Castilla, Andalucía, Aragón», ebatzi du Madinabeitiak. Alderdi Sozialistarentzat kulturalki Euskal Herria ez da existitzen. La Lucha de Clases-ek: «Quisieramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales (...), que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional» (1899) (...). Hala Alderdi Sozialistak, zuzenean asko eta zeharka gehiago, euskaldunentzat identitate espainola gotortzen zuen bitartean, hemen herri bat —identitate bat— desagertzen ari zen, hori sozialisten arazoa izan gabe. Inoiz ez da izan sozialisten arazoa (...). Etorri zen Franco, debekatu eta jazarri zuen euskara, pizkunde literarioa zanpatu, eskolak espainolismoaren burdinola bihurtu: euskararen herri jipoitu horren identitatea ez da sozialisten arazoa. Franco hil zen, PSOE gaur ezkertiar moderatua da, ez da klasista, ez da internazionalista, urteotan hagitz aldatu da. Kapitulu horretantxe ez da nonbait ezer aldatu. Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkaria itxi du, hemeretzi lagun atxilotu, zuzendaria eta arduradun nagusiak egunetan torturatu eta umiliatu; ia lau urte pasa denean oraindik horiek denek kontuak blokatuak dauzkate, epailearen aurrean astero agertzera behartuak daude, Estatutik irtetea debekatua dute; Egunkaria bera epaiketa egin baino lehen epaileak

---

7. Joxe Azurmendirekin 2018-08-09an izandako elkarrizketan argitua.

likidatu egin du, etab., historia goebbelsesko eredugarri bat. Manifestazio erraldoiak egon dira, ia erakunde politiko, sindikal, kultural, eliztar guztiak euren protesta eta solidaritatea erakutsi dute. PP pozik, Eta PSE? Ez da bere arazoa (EA, 14).

Zigorra kendu zaie, baina estatuaren arduradunek ez dute barkamenik eskatu, eta zinez bidegabekeria goebbelsianoak erreparatu gabe dirau, eta hala iraunen du.

## 7. Trantsizioaren mitologia guztia «bi Espainien» gainditu beharrak obsesionaturik

Historialari *progre* batzuek deitoratu omen dute Trantsizioa baliatu ez izana imajinario nazional demokratiko eta liberala eraikitzeko; hori nazionalismo periferikoek bakarrik egin omen dute, baina eginkizun hori Azurmendirentzat ezinezkoa zen, zeren imajinario benetan liberal bat uztarrezina da antolatu den moduko estatu batekin: «Gutxien-gutxienez erradikalki federala ez den bitartean, aldi berean imajinario ezberdinak eta kontrarioak ametituz, ez bat bakar orokorra, historialariok antza beti ere idealtzat amesten jarraitzen dutela ematen duen moduan» (EA, 15).

Trantsizioaren mitologia guztia Espainia eskuindarra eta Espainia ezkertiarra gainditzeko obsesioak jota egon da. Eta hein batean, lortu da: espainiar guztiak demokratak eta liberalak, haien esanetan behintzat:

Zapaterok Espainia liberal bat aldarrikatzen du. Aznarrek liberala aitortzen du bere burua, eta Esperanza Aguirrek (...). Juaristi liberalak, ETAtik, Euskadiko Ezkerratik, PSOEtik, PPraio xuxen-xuxen paseatu ahal izan du, beti triumfalki. Mario Onaindia, bera ere zerbait paseatua eta PSOEko liberala ordurako, Espainia berri horren imajinariorako historian figura gailen baten bila irten, eta ez da kasualitatez Pi i Margall eta Errepublikaren batekin topatu, ezpada monarka batekin eta absolutista bera: Karlos III.a desputa ilustratua, Inperioko guztietan hizkuntza bakarra inposatzen inoiz egon den tematuena<sup>8</sup> (...). Dena onartzen da liberalizat (razionala, etab.), salbu espainola zaren ala ez lipartxo bat dudatzea (EA, 16).

8. Ikus Onaindia, Mario (2002): *La construcción de la nación española*, Ediciones B, Bartzelona. Batez ere, Arandako kondeak eta G.M. Jovellanosen egindako erreformak goraiatzeko dira liburuan; baina ministro horiek Karlos III.a erregeak izendatu zituen. Jovellanosen Karlos III.a hil baino aste batzuk lehenago «Discurso en elogio de Carlos III» izenburuko mintzaldia egin zuen, eta liburuak jasotzen du. Hona paragrafo bat: «*Pero el logro más importante del reinado de Carlos III habrían sido las Sociedades Económicas, que habrían significado lo que hemos visto al comienzo de este libro cuando E. Kant definía la Ilustración: una transformación entusiasta, endiosada, de todos sus componentes en un único cuerpo místico patriótico en que, en aras del bienestar general, se funden en el que la entrega. Las palabras de Jovellanos, a este respecto, son de las más lúcidas e ilustrativas que dan cuenta de este proceso*». Ikus 240.-243. or. Karlos III.aren laudagarri ez den honako judizio hau ere jasotzen du liburua: «*Carlos III fue sucedido en 1788 por su hijo, el ya cuarentón Carlos IV, un rey que, como a su padre, le preocupaban más la caza y la salvación de su alma que las tareas de gobierno*» (252. or.). Liburuaren epilogoan honela azaltzen du zein uste edo konbentzimenduk eraman zuen bera nazio espainolaren eraikuntza ikertzera: «*Se me antojaba que existía una estrecha relación entre los problemas de mentalidades que nos atenazaban a los vascos con los que habíamos padecido todos los españoles, pero que el resto había resuelto mediante una transición generosa que en Euskadi no se produjo bajo los mismos parámetros. Para poder hacerme una idea más cabal y menos entreguista de la historia de Euskadi en la que todos, nacionalistas o no, asumíamos como eje vital y exclusivo de nuestra historia a Sabino Arana, debía tener en cuenta otras ideologías como la historia del socialismo y del liberalismo, pensamientos que no se habían producido en el marco exclusivo de Euskadi sino en el conjunto de España y Europa*» (342. or.). Joxe Azurmendiren ikuspegitik oso urrun noski.

Ibilbide historikoa eginik, atzera berriz hasierako galderara itzulita, euskaldunak espainolak ote garen alegia, posibilitate ezberdinak ikusten ditu Azurmendik.

Badira Euskal Herrian espainolista konfesionalak, euren kredo politikoan konbentzimendu axola handikoena espainolismoa dutenak, PP-PSOE fronteak erakutsi duenez. Espainolak dira eta izan nahi dute. Ez dute identitate-arazorik.

Beste talde bat ere ikusten zuen J. Azurmendik: espainolak izan nahi ez dutenak baina badirenak. Bizkaiko Ezkerraldeko ezkertiar anarkista joerakoak-eta zituen gogoan<sup>9</sup>, gaur egun Podemos-en ingurukoak edo, hots, espainol direla esatea hastio dutenak baina euskal identitatara heltzeko aski indar edo borondate ez dutenak, eta horixe, nahi gabe ere, espainol gelditzen direnak, identitatereen bat izatea saihetsezina baita.

Beste talde bat, berriz, abstentziozko jarrera duena. Hori bi eratakoea; horietako batzuk gauzak bere horretan joan daitezela nahi dutenak, hots, espainolismo ez agresibo bat, hori ere identitate-arazorik gabea, hots, identitate espainolarekin:

Jarrera hau, politikoki zikindu gura ez duen intelektual, literato, sindikalista edo apaiz jende askoren aterpe erraza izaten da. Propio espainolistak sentitzen ez badira ere, oso komodo dira espainolak. Zeharbidez, beraiek dira identitate dominatzaileak razional, liberal, moderatu bezala jendaurrean justifikatua agertzeko, hots, arazoa estaltzeko, behar duen berme baliotsuena (EA, 17).

Horrekin paraleloan, ordea, inkontziente axolagabea bai, baina euskotasun edo euskaltzaletasun kontziente bat ez-agresiboa ez da gertatzen edota ezin da gertatu:

(Euskaltzaletasun nahiz nazionalismo oportunistak bai, espainolistoak bezalaxe), *contradictio in adjecto* da, bere izaeraz beraz errebindikatiboa izan beharra baitauka, jada total etsia ez bada behintzat, edo estetiko edo zientifikoki soilik interesatua (Honek berak nahikoa erakusten du alternatibaren abiapuntuko bertako desoreka). Izan ere, euskalduna izan eta beste ezer ez naturaltasun guztiz, ezin da, gaurko Euskal Herrian inon ezin delako naturalki euskaraz bakarrik bizi, problemarik gabe, lanean, dendan, klinikan, Unibertsitatean, Ertzaintzan, garraio publikoetan (...). Euskal Herrian, euskaldunarentzat, eta are gehiago espainola izan gura ez duenarentzat, biolentziaren bete dago eguna goizetik gaueraino, Jainkoaren grazia handia baita biolentziak ez gehiago hartzea beste forma batzuk (EA, 17-18).

## **8. Ez-dependentzia eta separatismo sistematikoa estatuarekiko euskaldun gisa herrien Europan**

*Espainiaren arimaz* liburuaren hitzaurrea ekarri dugu hona, ohar eta gogoeta zenbait erantsirik, eta hitzaurregileak bere testuari amaiera emateko liburuaren ustezko irakurleari interpelatzen dio eta irtenbide posible bat zirriborratzen, diagnostiko partekatutik abiatutik:

Espainia-Estatu horren eta horren antolaeraren razionalitate bakarra, eta guztia, autonomikoa deritzon ere, bortxa eta inposizio historia batena dela huts-hutsik, pentsatuko duzu. Eta propaganda eta gezurraren razionalitatea Espainia-Nazio

---

9. Berarekin izandako elkarrizketan jasoa: 2018-08-09.

horren mitologia guztia. Estatuak indartsu diraute, baina Estatuaren zentzuak ez, Estatu-Nazioa soberan dago (...). Nazioak gu gara. Estatu-Nazioaren esanahi, XIX. mendean positibo posiblea, bukatua dago (...). Bost axola zaizu, espainola zaren ala ez, izan beharra badaukazu. Baina galdera hori egiaz galdera bat baldin bazen, zuk erantzungo zenuke: hola eta hala espainolak izateko esperimenduak nahikoa esperimentatu dira, ez dira batere ongi atera; zergatik ez esperimentatu beste zerbait?... Ez dela zilegi? A!, bai, Konstituzioagatik. Espainola izan nahi ez izateko, ehun eta batgarren arrazoia hori (EA, 19).

Gorago adierazi dugu *Cien razones por las que dejó de ser español* liburuaren hitzaurrea izateko idatzi zuela; hortik ehun eta batgarren arrazoiaren aipamen hori.

Borroka politikoari bere bidea egiten utzita, bera bezalako kulturgile edota idazleen lana honela azaltzen du: «Herri bat badagoelako kontzientziari eutsi, erraustu ziguten memoria berpiztu, galtzailearen arrazoia errebindikatu. Batez ere, etorkizun posible baten horizontea barrundatu» (EA, 20).

Eta hortik aurrera, etorkizun posible hori susmatzen edo bidea zirriborratzen hasten da, *zu* ustezko irakurlearengana zuzenduz hitz idatziok:

Liberalak, karlistak, sozialistak, anarkistak, nazionalistak, komunistak, errepublikarrak, badakizu historia guztiarenak garela herederoak, eta beraz, haien guztienak. Denak dira zure arbasoak, milesker guztiei. Baina, gero, historia horretatik guztiatik zeure burua desheredatu, eta bide berrien bila ortozik irten gura duzu mundura zure jendearekin (...). Hala, bada, nazionalismoa ez dakizu, baina ez dependentzia eta separatismo sistematikoa esperimendu gura duzu mundu zahar horrekiko, hori utzi, ahaztu, oso ongi jakinda mundua zer den gaur eta munduan non zauden zu —akordatua baitzaude zenbat kilometrora dagoen Madril eta zenbatera Paris—. Alegia, razionalitate berri bat —Estatuaz ezaxola ezin denez, hura ahal den gehiena ahaztuz, zilegi den gehiena baztertuz—, herriak batzen dituen, ez Botereak. Eta orenen aurretik Botere hemeretzigarrentiarrak barnebanaturiko herriak batzen dituen. Europa bateratuz badoa, mundu osoa baldin badoa bateratuz, razionala Euskal Herria ere bateratuz joatea da. Irrazionala, behiala bortxakeria irrazionalak inposaturiko egiturak orain ere mantentzen enpeinatzea (*Ibid.*).

Eginkizun ederra bezain zaila da lerro horietan iradokitzen zaiguna, bizi dugun garai indibidualista, likido eta global honetan. Baina noiz izan da erraza, bestalde, euskalduna izatea, azken berrehun urtean bereziki.

Zaila da euskaldun izatea trinkotasun eta duintasun gutxienezko gorago adierazi bezala, baina Joxe Azurmendiri ukatu ezin zaiona eta esker onez aitortu eta ezagutu behar zaiona da modu askotara enplegatu dela arrazoiak eta iradokizunak eskaintzen euskaldun jarrai dezagun, Euskal Herria batzen enplega gaitzen, politikak eskain dezakeena gutxietsi gabe —politikoki banatuak egonik nola batu kulturalki? Politika hutsa aski ez izanagatik, ezinbestekoa bai badugu!— eta gogoetagai izan dugun hitzaurre hau da diogunaren beste erakusgarri bat.

Zailtasunak gorabehera, ahalegindu gaitzen jaso ditugun baino euskal ebidentzia hobek erakitzen eta oinordetzen.

## Bibliografia

Azurmendi, Joxe (1992): *Espainolak eta euskaldunak*. Elkar.

———, (2006): *Espainiaren arimaz*, Elkar.

———, (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar.

———, (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Jakin.

Esparza, Jose Maria (2006): *Cien razones por las que dejé de ser español*, Txalaparta.

